

**2020ko
Gorbeia Suzien
Munduko
Kopako
Txapelketan**

15. orrialdea

**Hamabost egun baino ez ipuin
erotiko lehiaketara lanak bialtzeko**

Zemendiaren 15ean, Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketan parte hartzeako epea zarratuko da. Zertu Kultur Elkarateak antolatutuen dau lehiaketea eta narrazioak begitu@topagunea.com helbidera bialdu behar dira. **16. orrialdea**



**Pobreziaren
kontrako jai
solidarioa
hilaren 15ean
Igorren**

17. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

327

2019ko zemendiaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Araluceko lanpostuen defentsan mobilizazioak

Urri bigarrenaren 25ean, ehundaka lagunek manifestazioa egin eben Igorren Araluce ez ixteko eskatzeko eta 141 beharginen lanpostuen defentsan.

Araluceko langileak ordu biko lan-ixteak egin izan dabez urri bigarrenaren bigarren hamabostaldian eta hainbat konzentrazio eta manifestazio. Handiena, urri bigarrenaren 25ekoa izan zan. Bertan Arratia osoko jentek adierazo eutsien babes. Izan be, likidazio prozesuan dago eta, hemendik ordura urtenbide bat topau ezean, urtea amaituteagaz batera fabrika zarratuko dabe.

2016an BATZ Kooperatibeak

Araluce erosi eban. BATZek, BATZ taldean sartzea, produktzio ahalmena betetea, apurka-apurka lan gama osoak ezartzea eta etorkizunerako bidegarritasuna bermatzea agindu eutsan Araluceri. Lan kargea murrizten joan da eta pasadan hilean, BATZek likidazio prozesua abiatu ebala jakinarazo eutsan Araluceko Enpresa Komiteari.

Harrezkerotik mobilizazioetan hasi dira beharginak, euren 141 lanpostuak galdu ez daitezkan. **7. orrialdea**



ARRATIA

Erabiltzaileak kolokan ipinten ditue umeen babeserako zerbitzuak

Bizkaiko Probintzia Auzitegiko auto batek, Foru Aldundia inputau eban, Igorreko Irune Costumerori umea "indarrez" kentzeagaitik aitari emoteko. Epaikearen zain oindino bananduta dagoz ama-alabak. Hainbat alkartek sare bat sortu dabe zuzenbidearen kontra izan daitezen, zientziak onartuten ez dauan Guraso Alienazio Sindromea argudiatzea gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak jokoan dagozan edozein eremutan. **10. eta 12. orrialdeak**

DIMA/ZEANURI

Arnasa Gara kanpaina aurkeztuko dabe Diman eta Zeanurin

Arnasguneen garrantziaz jabetuteko, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta beste erakunde batzuek Arnasa Gara izeneko kanpaina ipiniko dabe martxan. Kanpainearen euskarri nagusia abendutik aurrera EITBK emongo dauan *Kartzela* webseriea izango da eta 22 herritan egingo dabez aurkezpenak. Arratian, Diman eta Zeanurin. Diman hilaren 8an, 19:00etan izango da Abaroa Aretoan, eta Zeanurin hurrengo egunean 18:00etan, Kultur Etxean. **5. orrialdea**

ARRATIA

Gontzal Mendibilek diskoa eta liburua atera dauz

Kantari zeanuriztarrak berak sortutako eta hainbat euskal idazlearen letrakaz sortutako kantuak batzean ditu *Biok* izeneko disko barriak. Gontzal Mendibil kantuan hasi zanetik 45 urte bete dira eta zemendiaren 3an, Bilboko Arriaga antzokian emongo dauan kontzertuan, bere ibilbide osoko kantu ezagunenak eta disko barrikoak kantauko ditu.

Diskoagaz batera, Liburua be argitaratu dau Ediciones Beta argitaletxean. *Bittor eta biok* dauka izena eta Bittor Kapanagaren pentsakerea, munduaren ikuskerrea, eta Kapanagaren eta Mendibilen arteko hartu-emonen jasoten dauz. **16. orrialdea**



ate irekiak
elejalde 10. Igorre
azaroaren 15ean. 18:00etan

edatekoa, jatekoa, musika eta aniztasuna



Literatura txokoa

MUNDUKO TOKIRIK EDERRENA

Aspaldian hartu neutsan gustua Iñigo Aranbarri idatzitako liburuak irakurteari. Aitortu behar dot sarritan kostau egiten jatala bere narrazinoen haria jarraitutea, hain da aberatsa bere hiztegia nire buruan daukadan hiztegi mugatuak gainezka egiten dauala. Normalean baino astiroago irakurrita be, bere liburuakaz lortzean dodan gozamenak edozein traba gainditzen laguntzen nau.

Ba kasu honetan ez dot zailtasun hori hainbeste sentidu, irakurketa errazagoa egin jota. *Munduko tokirik ederrena* liburu aurretik irakurri dazadan bere beste liburuak baino errazago egin jota irakurterakoan, hiztegia eta idazkera betiko moduan aberatsa izanda be, liburu osotzen daben ipuinen haria ez galtzea erraza izan da.

Ipuinez osotutako liburu da eta

hemen aitaturakoa, 2018an idatzia. Aranbarri oin arte batez be poesia eta eleberrak idatzi badauz be, igaz lehenengoz ipuin-liburu bat argitaratu eban. Hamar ipuinez osotuta dago. Kapitulu batetik bestera jarraipenik ez badago be, alkaren arteko loturak aurkitu geinkez irakurketan. Kokapenaren aldetik danak Urola bailararen inguruan lekututa dagoz, Aranbarri beraren jaioterriaren inguruan (Azkoitia). Joratutako gaietan be lotura aurkitu geinke, ipuin guztiak iraganeko gertaerak buruzkoak dira eta. "Atzorian gabe ulertetik ez dagoen oraina" esaten dau liburuak berak; memorian gelditutako iraganeko gertaerak orainaldian daukien isla aurkituko dogu ipuinotan. Istipua, hilketak, garrantziarik bako gertaerak, drogak, herria... hainbat dira iragana orainera

ekarriko daben gaiak.

Ipuin bakotxa irakurten haste-rakoan "galduta" egotearen sensazio atsegina sentidu izan dot, baina Iñigok zer kontatuko deuskun eta istorioa nondik joango dan jakin ezinak, irakurketeagaz jarraitu arazo egin deusta atal guztietan, gelditu ezinik. Ipuin honeek hasikera-hasikeratik "engantxu" egiten zaitue. Gainera, lerro gixitan ederto kondensau izan dauz istorio biribilak, ipuinen formatuan be narrazino luzeetan moduan kalidade handiko kontakizunak oparitzen deuskuz liburu honetan. Iragna gero eta handiagoa daukagunok gainera une askotan identifikautu ikusiko dogu gure burua istorioetan. Gertutasun horrek lagunduta, asko gozatzeko liburu dozue hau.


Hektor Rodriguez

Iñigo Aranbarri

Munduko tokirik ederrena

Susa argitaletxea, 2018

160 orrialde



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bi. 28tik zomendiaren 3ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zomendiaren 4tik 10era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zomendiaren 11tik 17ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gometza Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notariotza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkarte.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

***Oharra:** BEGITUREN 326. zenbakian, Familia Nekazaritza eretxi artikulua- ren egilearen sinadurea, Errose Aurkoetxea Gurtubai, maistra ohi eta baseritar izan beharko leuke. Parkatu eragozpenak.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Ahausi



Txakurrak, otsoak eta antzeko animaliak, ezezagunaren aurrean, defentsa edo eraso modura egiten daberen ahozko zarateari ahausia esaten jako (ausie, ahoskatuta). Batuan, zaunka erabilten da gehienbat. Adibide bat: "Gure txakurren ahausiak entzun dodaz, eta itxartu egin naz". Ahausi berbearen esangura bardina badaukie beste berba honeek be: ahausikada eta onomatopeikoak diranak txau-txau, aun-aun...

ERETXIA

Oinarrizko eskubideen kontrako sedizinoagaitiko kondenea

Auzitegi Gorenak 104 urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra ezarri deutse proceseko hamabi buruzagiei, sedizino eta diruaren bidebako erabilera (12 eta 13 urte bitartean), sedizinoa (9 urte eta 12 eta sei hilabete bitartean) eta desobedientzia (urtebete eta 8 hilabete) delituakaitik.

Horregaz, Gorenak Pedro Sanchezen gobernuaren menpeko Estadua- ren abogadutzaren funtsezko tesia onartu, eta Pablo Larena instruzino epailearen eta fiskaltzaren tesia atzera bota eban, matxinatea eta zigor oindino gogoragoak eskatzen ebalako. Matxinatea delitua justifikau ezina zalako jausi da, batez be nazi- noarte mailan, ez zala indarkeriarik egon ezin zalako ukatu.

Baina oso kondena gogorra izaten jarraitzen dau, benetan gertatutakoai lotzean ez jakiena, polizia-agintariak, instruzino epaileak, Estaduko po- dereak, erregea bame, eta estaduko komunikabideak eregitako kontaki- zunari baino. Hona hemen El País egunkariak epaia zalan azaldu eta justifiketan dauan: "Matxinatearen eta sedizinoaren arteko desbardin- tasuna da lehenengoak Estadua- ren egiturak aldatzea daukala helburu (lurralde baten independentzia lor- tzea, Konstituzinoa urratzea kalean izandako indarkeriaren bidez); bi- garrenak, bariz, legeen aplikazioa eragozteko ekintza iskanbiltsuak sustatzea. Matxinatea egon daiten, altxamentua "publikoa eta bortitza" izan behar da, eta, Gorenak indarke- ria aldiak izan zirala egiaztatutza jo- ten dauan arren, auzitegiak uste dau matxinatea egon daiten, indarkeriak matxinatea planaren egiturazko zati bat izan behar daua. Eta, Katalu- niako kasuan, buruzagi indepen- dentistak ez ebezan indarkeriazko ekintzak procesaren parte moduan bilatu edo planifikau".

Ha-ta guzti be, gertaerak ez dabe egiaztatzen indarkeria aldiak edo



MARTÍ CAUSSA

Viento Sur aldizkariako
Erredakzino Batzordeko kidea

iskanbila ekintzarik egon zanik, aku- sazinoak eta hain kondena lariai justifiketako; persona batzuek oso kasu gitxitan izan eben hondar-indarkeria askoz txikiagoa izan zalako Espainiako Estaduan edo Europan egindako manifestazio askotan baino.

2017ko urri lehenengoaren 20an, Ekonomia Sailaren egoitza- ren aurrean egindako kontzentrazi- noan, indarkeria Guardia Zibilaren auto batzuk mailatutea izan zan. Auto horreetara persona eta kaze- tari asko igon ziran Jordien aurretik, protesta masiboa eta baketsua justifiketako edo kontzentrazioa ixtera deitzaeko. Eta han ez zan eragotzi ezelango legerik apliketea, Guardia Zibilak arazo barik egin ahal izan ebalako miaketea. Irudiak hobeto azaltzen dabe hori: <https://www.youtube.com/watch?v=5bN8ZM-V4Jo&feature=youtu.be>.

Urri bigarrenaren 1eko bez- peretan hauteskunde-kolegioen okupazio baketsua egin zan, bariku arrastia ezkerotzik. Urri bigar- renaren 1ean miloe bi hirurehun mila personako bozketea egin zan Auzitegi Konstituzionalari desobe- ditzen. Indarkeria bakarra Polizia eta Guardia Zibilarena izan zan, hau- testontziak eta botoak bahitzea eragozteko erresistentzia baketsua egiten eban jentearen kontrako. Hor dagoz irudiak: <https://www.youtube.com/watch?v=tKQ4NDN-G7A&feature=youtu.be>.

Horreek izan ziran gertakariak. Eta hurrengo honeek gaitzesten diran es- kubideak: bilera eta manifestazioa bai Ekonomia egoitzan, bai hautesle- kuetan; bozketea erreferendumaren kasuan; desobedientzia zibila lege bidebakoaren aurrean; Auzitegi Kons- tituzionalaren ebatziak Kataluniaren erabakitzeko eskubidea eragozteko; erresistentzia baketsua kolegioak ba- besteko; eta abar.

Gorenaren zigorrak ez deutse hamabi auzipetuai bakarrik eragiten. Ekonomia Sailaren egoitzaren au- rreko kontzentrazioan, kolegioen okupazioan eta defentsan parte hartzean dogun personai eragiten deusku, urri bigarrenaren 1eko boz- ketan, Estadua- ren gobernuari eta Generalitateari autodeterminazio eskubidea gauzatzeko eskatzeko urteetan manifestau izan garan mi- loeka personoi. Kataluniako Assem- blea Nazionalaren kontzentrazio baten Carme Forcadellek zera esan eutsan Artur Maseri: "*President, posi les urnes!*". Eta ehunka mila lagunek esan deutsegu gure politikariak: "*Vo- lem votem!*". Inoz ez ziran hain urrun helduko presino hori barik. Horregai- tik Gorenaren epaiak kondenetan gaitu hori egin genduan guztiok.

Gorenaren epaiak ez deusku eragiten aurreko gertaeretan, oi- narrizko eskubideak baliatuz, parte hartzean dogunoi bakarrik. Etorki- zunean jardun gura daberen persona guztiak eragingo deutse, Katalunian eta Estadu osoan. Hau da konde- naren benetako irismena. Horixe zan PPre- n gobernuaren plan estra- tegikoa epaiketea bultzatzerakoan, baita Pedro Sanchezena be hura mantendutarakoan eta bien atzean dagozan Estaduko podereena. Au- rrerantzean, herritarren ekintza ma- sibo eta baketsuak, oinarrizko es- kubideak erabiliz, zalapartatsutat jo ahal izango dira, eta sedizinoa leporatu ahal izango jakie.

Horregaitik Katalunian eta Espai- niako Estadu osoan mobilizau behar da epai horren aurka:

- Preso eta erbesteratuen askata- suna eskatzeko, amnistiaren alde. Pedro Sanchezeri epaia ezetu eba- nean egin ebana atzera egiteko. Izan be, eskoia baino ahulagoa ez izateko, indultua errefusatu eta epaia osorik betetea exijidu dau.
- Oinarrizko askatasun guztien erabi- lera askearen alde, erabateko eta mu- rizketarik bako demokraziaren alde.
- Kataluniaren eta herri guztien auto- determinazio eskubidearen alde.

Aukera asko egongo dira mobi- lizazioak egiteko, Katalunian eta Estadu osoan. Izan be, Jordi Cuixar- tek Auzitegi Gorenako epailei lasai azaldu eutsen modua, eskubideak gauzatu egiten dira: #HoTomare- mAFer [berriro egingo dogu]. Eta horixe errepikatu dau epaia jakitean: "Barrio egitea da erantzuna".

*** Erredakzinoan itzulia**

BATZ 50 urte
BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)
IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

LUMATUTEN



**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA**

Orbelak

Udagoiengan, gure orri-galkorreko zugatzen orriak edo hostoak kolorez aldatzen doaz eta zimeldu ahala jausten, orbel mantuz jantziz gure basoetako pagadui, harazdui, gaztainadui eta gainetikoak. Orbel berbea, konposatua da: orri+bel. Jatorria bagoaz, (h)orri berbea da zaharra, nahiz eta gaurko araubidean, orri, h-a galduta erabili. Beste euskalkietan eta euskera batuan be, hosto erabilteko joera dago baina begiratu nondik eta norakoa dan hosto-ren jatorria.

Aikomen erantzuna. Hosto, orsto-tik dator: (horri berbea + -sto atzizki diminutiboagaz) eta hortik, hosto. Bigarren berbea, bel. Berba honen erro zaharrak ilun kolorea adierazoten deusku, gazteleraz *negro* berbeagaz itzuli arren. Jatorrizko bel horretatik bilakatzen da, belz>beltz/balz>baltz mendebaldean. Berba biak alkartuz: orri+bel>orbel bilakatu da eta zentzuari begira,

gure udagoieneko orri-galkorreko zugatzen orriak edo hostoak orbel bihurtzen dira euren kolore ilun edo marroi-gorrixkea bitarteko. Beraz, koloreetan ez datoz bat euskera eta gaztelera.

Antzera gertatzen da urdin koloreagaz be, urdin ez da *azul* bakarrik, tonalidate gehiago ditu euskeraz, esaterako, gaztaiaren epai egondua urdinu egiten da, buruko ulea be urdinu edo zurixkatu egiten da, gure zerua urdina gehiago da azula baino eta holan beste kasu asko.

Basoetako orbelak, lurzoruak janzteaz gain, baserrietan erabili izan dira azpigarri lez ganaduai azpiak egin eta satsetarako, gero abonu gisa erabilteko. Lehenago gure soloetako abonu bakarra satsa zan eta horregaitik udagoiengan azpigarria batzean joaten ziran gure baserriarrak, alde bate-tik idebaten, hau da, pinudietako idak ebagiten, basoan bertan metatuteko edo etxe ondora ekarri eta idapiloak egiteko; bestetik, azpigarritan, pinu-orria edo eta orri-galkorreko zugatzen orbelak batzean kortara ekarteko. Gaur ez dago lehengorik. Baina, tira, oindino be, orbelak berbea, herri-kantuetan behintzat gorde dogu: aikor, besetak beste, herri-kantu polit honen hasikerea "Orbelak airez aire/pipertxo dulzia/Landamingo zubitik/doian errekoa/...".

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Lemoako Gaztetxeak bere 20. urteurrena ospatzeko hainbat ekintza burutu zituan urri bigarrenaren atzen astegoiengan. Barrikuan afarria eta ekitaldia egin zan Gaztetxe ondoko parkinean ipinitako karpan. Hauxe ekitaldi hasieran Kattalin Burgoak botatako bertsoa:

Orain dala 20 urte
izan ginen jaiobarri,
zoritarrez zorionez
su batek hona ekarri.
Nahiz bidean hainbat aldatz
egon izan diren sarri
grisa koloreztatzeko
egin zenduen aldari.
Autogestioan bidez
herritxo bat martxan jarri
Gaztetxearen beroa
urrindik dogu igarri
harriketar segi aurrera
beti bezain maitagarri.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarronga
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbate 100
R.P.S. 21/06

**ASESORIA
Gorbeialde**
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Lehendakari Agor 22
ETROITZ
Agortzen gurek osatzen.

ARRATIA

Altsasuko gazteen eta Kataluniako prozesuaren aldeko konzentrazioak



Zeanurin batutakoak Altsasukoak aske ixteko eskatuten.

Erredakzioa

Altsasuko gazteak eta Kataluniako prozesu subiranistaren buruzagiei Auzitegi Gorenak emondako epaiak, kalera atera zituan arratiarrak urri bigarrenaren bigarren hamabostaldian be, ezarritako zigorrak injustizia eta gehigkeria dirala eretxita. Holan, urri bigarrenaren 18rako ELA, LAB, STEILAS, ESK, Etxalde eta HIRUK konzentrazioa deitu eben "Erreferenduma ez da delitua. Askatasuna" lelopean Lemoako udaletxe aurrean. 40 lagun inguru batu ziran. Hilaren 25ean ostera, Iruñako manifestazioaren aurreko egunean, Altsasuko gazteak aske ixteko eskatuten konzentrazio bi egin ziran Arratian, bata Areatzan (40 lagun), eta bigarrena Zeanurin (50 lagun).

BEDIA

Sanmartinetan txarrikia

Bedian, barbarako. Aurten, astelehena da zehazkiaren 11 eta aurreko zapatuan, hilak 9, ospatuko dabe udagoieneko jai hau.

Erredakzioa

San Martin eguna zehazkiaren 11n da eta sasoi baten txarria hiltzeko eguna izaten zan. Euskal Herrian San Martin izenpeko ermita asko dagoz eta batzuen inguruetan, txixi-buruntzia edo-eta babajanak txarriagaz antolatuko ditue auzokoak. Baita Arratian be;

Zehazkiak 9, zapatua

09:00etan, ibilaldia Martin Atutxaren oroimenez, plazatik urtenda.
10:30etik **12:00**etara, txixi-buruntzia, herriko gazte trikitilariak girotuta.
12:00etan, mezea ermitan.
12:45ean, bola jokoa eta zozketea.
14:30ean, baba-jana eta erromeria frontoian.

ZEBERIO

Aurrekontuak egiteko hainbat proposamen jaso ditue udaletxean

Erredakzioa

Udaletxeko atek zabalik dagozala eta aukera hori hainbatek erabili dabela alkateagaz egon eta aurrekontuak begira proposamenak egiteko, azaldu deusie BEGITURI Zeberioako Udaletik.

Ez da izango herritarren propo-

samenak jasoteko bide bakarra. Izan be, Zeberioako Udaleko webgunean gune berezi bat sortu, korreo bat aktibatu eta udaletxeko aterpean buzoia ipinteko asmoa agertu dabe Udaletik. Whatsapp be erabili daiteke herriko aurrekontuetarako proposamenak egiteko.

DIMA/ZEANURI

Arnasa Gara kanpainearen aurkezpena egingo da Diman eta Zeanurin

Zehazkiaren 8an, 19:00etan, kanpainearen

aurkezpen ekitaldia egingo da Dimako Abaroa

Aretoan eta hurrengo egunean, 18:00etan, Zeanuriko Kultur Etxean.

Erredakzioa

Kanpainearen euskarri garrantzitsua izango da abendutik aurrera EITBK emongo dauan *Kartzela* webseriea be, eta serie horren lehen kapituluak aurkeztuko dira Dima eta Zeanuriko ekitaldietan. Serieko aktore batzuk be egongo dira bertan, landuten diran gaien inguruko hausnarketea modu alaietan eta erakargarrian egiteko.

Ondoren, mokaua egongo da Diman eta bertso afaria Zeanurin.

Sustrai Colinak eta Aitor Mendiluzek botako dabez bertsoak. Bertso afaria Jubiladuen tabernan izango da, 20:30ean, eta txartelak jubiladuen tabernan bertan erosi ahal izango dira 20 euroko prezioan.

Ordu eta erdiko saioa izatea aurreikusten da eta saioaren amaieran herritarrak euren ekarpenak egingo ditue. Guztira 22 herritan egingo dira aurkezpenak.

Kanpainea

Kanpaineak fase bi izango ditu. Lehenengoan, aurkezpen ekitaldiak egingo dira herriz herri; webgunean Arnasa Gara kanpainearen nondik norakoak bilduko dira, eta sare sozialetan kanpainearen gaineko mezuak nahiz herrietako saioen agenda zabalduko da. Durangoko Azokan amaituko da lehen fasea, *Kartzela* serie digitalaren aurkezpen publikoagaz batera.

Bigarren fasea abenduaren erdikaldetik aurrera izango da. Serie digitala Euskal Herri osoarentzat

ikusgai egongo da eta arnaseguneak ezetuten emongo dira, daukien garrantziaz jabetu daiten jentea. Euskal Herriko gainerako euskaldunak zuzenduko jakie mezua, diskursoaren lanketea eginaz.

Arnaseguneak

Joshua Fishman soziolinguistek *Reversing Language Shift* (1991) liburuan hizkuntza baten biziraupenerako eta bizibarrizterako *breathing space* edota arnasegune bat zein garrantzitsua dan nabarmendu ebanetik, hizkuntzen bizibarrizte prozesuetan iparroratz bihurtu da arnaseguneak jagotea.

Euskal Herrian be lan handia egin da ildo horretan. Ikerketa eta programa soziolinguistiko ugari egin dira atzen 20 urteotan herri honeen egoera soziala ezetu eta zaintzeako asmoz. Holan, lehen aldiz arnaseguneen garrantzia azpimarratuko dauan kanpainea abian jarri dabe Eusko Jaureritzak, Nafarroako Gobernuak, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak, UEMAK eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

arnasa
GARA
www.arnasagara.eus
Arnaseguneak euskarari hauspoa ematen

LEMOA

Espainiako Auzitegi Gorenak baliobakotu dau Juan Maria Atutxaren kondenea

Erredakzioa

2008an, Espainiako Justiziak Juan Maria Atutxa, Eusko Legebiltzarreko lehendakari ohia eta Kontxi Bilbao eta Gorka Knörr Legebiltzarreko Mahaiko kideak kondenu egin ebazan Sozialista Abertzaleak legebiltzar taldea ez desegiteagaitik. Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzi-

tegiak, kondenakaz politikarien eskubideak urratu zirala ebatzi eban eta oin Espainiako Auzitegi Gorenak bertan behera itxi dau zigorra.

Auzia Batasunaren legez kanporatzeagaz hasi zan. Auzitegi Gorenak Sozialista Abertzaleak desegiteko agindua emon eutsan Eusko Legebiltzarri baina Mahaik ez eban agindua bete,

Legebiltzarren araudiaren kontrako zalako. Desobedientzia honengaitik zigortu ebazan Legebiltzarreko mahaikideak.

Honek helegitea ipini eben Estrasburgon eta hango epaileak ebatzi eben, Auzitegi Gorenak zigortu ebazala euren buruak defendiduteko aukerarik emon barik.



Juan Maria Atutxa.

IGORRE/LEMOA

Kiroldegietako beharginak greban

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 28tik zemendiaren 10era arte, Bizkaiko kiroldegi eta kirol zelaietako beharginak; tartean, Igorre eta Lemoako kiroldegietakoak, greba egiten dabiz, hitzarmen duin baten alde.

ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuak egin dabe 15 egunetako greba deialdia. Deialdiak Bizkaiko udal kiroldegietako eta kirol klub pribaduetako 2.000 langileri (monitore, sorosle, atezain edota kiroldegi publikoetako mantenimen-

tuko langileai) eragiten deutse. Erdiak baino gehiagok kiroldegi publikoetan egiten dabe behar.

Mobilizazioak langileak enpresak zein udalak presionau gura ditue, euren lan baldintzak hobetuko dauan konbenioa negoziatuko.



ARRATIA

Arratiako produktuen Gabonetako otzarak erosteko interesa agertu dabe arratiarrak

Erredakzioa

Zemendiaren 30era arte erosi daitezke otzarak. Igitiek, Baserriar Agroekologikoen Alkartek, Arratiako Zaporeak izeneko kanpaina ipini dau martxan. Urri bigarrenaren 15ean hasi zan kanpaina hau eta Igitie alkartetik ondo doala dinoe. "Jente askok interesa erakutsi dau eta poztu egin da Arratiako produktuen barri izateagaitik" dinoe.

Otzara bi dagoz aukeran. Leungane izenekoak 30 euroko prezioa dauka eta bertan, pastea, txarriki lotea, ezitia, gozokiak, sagar zukua, ketchupa eta tomate naturala dago. Bestean, Itxina izene-

koan, pastea, txarriki lotea, ezitia, gozokiak, sagar zukua, babea, mermeladak, piperrin ozpinkia, tomate naturala eta kalabaza kremea dagoz 50 euroko prezioan. Barazki konserbak uztaren arabera aldatu daitezke.

Jasotzeko lekua

Eskariak egiteko bi telefono dagoz, 605 728 358 eta 667 395 099. Otzarak hurrengo leku eta egunetan jaso ahal izango dira. Abenduaren 14an, Igorreko azokan; hurrengo egunean, Dimako azokan; abenduaren 19an, Arteako Herriko Bentan eta hurrengo egunean Zeanuriko Txoko Sagaran.



LEMOA

Inguruko baserrietako produktuak Lemoako XX. Nekazaritzako Elikagaien Azokan

Erredakzioa

Zemendiaren 10ean, 10:00etatik 15:00etara, XX. Nekazaritzako Elikagaien Azoka egingo dabe Lemoako Elizondo auzoan. Bizkaiko 14 herrietatik eta Gipuzkoako batetik etorriko dira baserriarrak, 20 postutan, sasoi honetako produktuak saltzera.

Baserriko hanburgesak (Lemoa), frutak, barazkiak, mermeladak eta konserbak (Igorre), ezitia (Zeanuri), ogia, fruta ekologikoa eta ardi gaztaia (Zeberio), baserriko txorizoak, pastelak eta ogia

(Orozko), Urdulizko garagardoa edo Galdakaoko txakolina egongo dira salgai, besteak beste. Gipuzkoako Seguratik karakolak ekartekoak dira.

Udagoienean faltau ezin diran perretxikoak be egongo dira ikusgai, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako erakusketa mikologikoa Atxetako plazan. Perretxikoak, Arratian bertan batutakoak izango dira. Izan be, hilaren 9an, Ganzabalek, goizeko urtekerea antolatu dau Arratiatik perretxikotan joateko.



ARRATIA

Kartelak eta etxeko elektrizidade konponketak egiteko tailerrak Jabekuntza Eskolan

Erredakzioa

Kartel feministak diseinetako tailerra Lemoako Kulturgunean izango da Torontileren eskutik. Ikastaroa talde feministetako kideai dago zuzenduta, aldarrikapen eta ekintzak zabaltzeko kartel deigarriak egiteko tresnak emoteko helburuagaz. Ikastaroak lau saio izango ditu, 19:00etatik 21:00etara, zemendiaren 4, 7, 11 eta 13an, hain zuzen. Ordenagailua eroan behar da.

Elektrizidade konponketak

Hilaren 15, 16 eta 17an, Auri Vallejo Sanzek etxean elektrizidade konponketak egiteko tailerra emongo dau Bediako eskolak izandakoetan. Formatzailearen ustez, "brikolajeagazko edo elektrizidadeagazko bildur orokortua, desinformazioa baino ez da" eta mundu horretan, autosufizientzia lortzea dauka helburu tailer honek.

Lehenengo saioa, hilaren 15ean, barikuan, izango da 18:00etatik 21:00etara. Hurrengo egunetan, zapatu-domekan, 10:00etatik 13:00etara. Izena zemendiaren 8ra arte emon daiteke Arratiako Udalen Mankomunitatean.

ARTEA

Herritarraz batzarrak egiten hasi da Arteako Udala 2020ko aurrekontuak egiteko



Erredakzioa

Urri bigarrenaren 24an izan zan auzoen lehenengo batzarra eta zemendiaren 7an izango da hurrengo. Herri batzarra zemendiaren 14an izango da.

2020ko aurrekontuak egiteko prozesu parte hartzailea, urri bigarrenaren 18an hasi zan Ogasun Batzardea eta Batzarde Informatiboagaz. Ondoren, auzoen batzarrak hasi ziran.

Lehenengo batzarra deituta egozan Biteri, Ugarte, Astui, Garrantxe, Esparta, Larrazabal, Garai, San Martin, Bildosola, Mendietta, Gaztelu, Agarre, Bistalegre, Eleixabeiti, Gallao, Madaria, Ibarretxe, Olabari, Ugaldeta, Igertza, Sarasola, Garaiurkiola, Kukutze, Murga, Iturria, Laureta, Errotaza-

har eta Medietagoikoako auzotarrak. Bigarren batzarra, zemendiaren 7an, 19:30ean, Kultur Etxean izango da, eta han, Herriko Plaza, Kalleja eta Astuibekoakoak egin ahal izango dabez euren ekarpenak. Hurrengo astean, hilaren 14an, 19:30ean, herritar guztiak dagoz deituta Kultur Etxeko batzarra.

Batzarrotan, herritarraz euren eretxian hurrengo urtean eginbeharrekoen barri emoten deutsee udal ordezkariak, eginbehar horreek aurrekontuetan sartu eta diru partida bat izan dagien.

Ondoren jasotako ekarpenak aztertuko dabez eta abenduaren 2an Ogasun Batzardea batuko da. 2020ko aurrekontuak onartzeko ez ohiko Osoko Bilkurea, abenduaren 13an izango da.

ARRATIA

Hondakin handiak ixteko hiru modu egoki dagoz

Arratiako Udalen Mankomunitatetik (AUM) jakinarazo dabe aspaldi honetan, tamaina handiko hondakinak pilatzen dirala eukiontzien ondoan, kontrol barik. AUMk, Hondakin Handiak biltzeako zerbitzua, Igorreko Garbigunea eta Berrerabilpen Etxola ditu modu egokian batzeatzeko.



Igorre.

Erredakzinoa

Hondakin handien eukiontzien ondoan kontrolbako pilatzeak, inpaktu bisual handia izateaz gainera, kamioien hondakinak biltzeako lanak oztopatzen ditue. AUMk hondakin handiak biltzeako zerbitzua dauka. Horretarako AUMera deitu behar da esateko gitxi gorabehera zenbat eta zer diran bota gura diran gauzak. Ondoren, mankomunitadeara eskatzaileagaz ipiniko da kontaktuan adierazoteko noz eta non itxi behar dituan horreek hondakinok.

Beste aukera bat norberak Igorreko Garbigunean ixtea da. Gar-

bigunea asteko zazpi egunetan dago zabalik. Asteleheneetik zapa-tura, goizeko 09:30etik 13:25era eta arrastiko 15:30etik 18:00etara eta domeketan 09:00etatik 15:00etara.

Garbigunean bertan, euren konserbazino eta egoereagaitik oindino erabili daitekezan gauzetarako, Berrerabilpen Etxola dago. "Behar bezala jardun ezker, erabilten ez diran materialak gaika biltzea eta birziklatzea bultzatzen dogu, beste erabilera bat emoteko edo lehengai barri bihurtzeko, zikloa zarratuz eta ekonomia zirkularra bultzatuz" dinoe AUMtik.

IGORRE

Manifestazino jentetsua Igorren Araluceko 141 beharginen alde

Urri bigarrenaren 25ean, "Araluce ez itxi. Arratiako lanpostuen alde" inoan pankartearen atzean, ehundaka lagunek, 500 inguruk, manifestazinoa egin eben Igorren. Arratia osotik etorritako jentek adierazo eutsen alkartasuna beharginai.



Manifestazino burua.

Erredakzinoa

BATZ Kooperatibek 2016an Araluce erosi eban, bere trokelgintza indartutako asmoz. Oin, merkadua aldatu egin dala eta abenduaren 31rako Araluce likidetako asmoa dauka BATZek. Aralucen 141 lagunek egiten dabe behar.

Arratia osotik joandako jentek erakutsi eutsen alkartasuna Araluceko langileai, hainbat herritako alkate eta zinegotziak tartean. Manifestazinoa arrastiko seiretan abiatu zan fabrika aurretik eta Kultur Etxeko plazarainoko ibilbidea egin eban. Han Araluceko beharginak hartu eben berbea, egoerea azaldu eta euren lanpostuen defentsan jarraituko dabela adierazoteko.

Bezperan, EH Bilduk komunikatu bat zabaldu eban, Araluceko langileai alkartasuna adierazoz eta BATZeko zuzendaritzeari Araluceko langile batzordeagaz batzeako, eta Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko

Jaurlaritari urtenbidea topetan lagundutako eskatuz. Baita, BFAk eta Jaurlaritzak udalakaz lankidetzan, Arratiarako Plan Industrial bat diseineteko be.

Burrukan

Aralucek autoen piezetarako trokelak diseinatu eta fabrikatu egiten dauz. Baita BATZek be. BATZek Araluce erosi ebanean, BATZ taldean sartzea, produkzio ahalmena betetea, apurka-apurka lan gama osoak ezartzea eta etorkizunerako bidegarritasuna bermatzea agindu eutsan Araluceari.

Horretarako, soldatak jeitsi, lanordu gehiago egin eta beste murrizketak batzuk egin behar izan ebezan Aralucekoak, baina urri bigarrenaren 3an, BATZek, Araluceko Enpresa Komitea bilera batera deitu eta likidazino prozesua abiatu ebala azaldu eutsan. Hori dala-eta, urri bigarrenaren 15ean ordu biko lan-ixteak hasi ebezan eta horretan jarraituten eben urri bigarrenaren amaieran.

BATZ

Araluce likidetako errazoa, automozinoan merkaduak behera egin dauala dala dino BATZek. BATZEN arabera, ez dira kotxeak ekoizten eta ezin dabe trokelgintza bi mantenidu eta BATZeko lanpostuak manteniduteko beste aukerarik ez dago. "Ezin dogu gure kooperatibearen sostenibilitadeara arriskuan ipini, ze BATZek 700 behargin ditu". Aralucekoak, 2016tik, 700 ez, 841 behargin dituala BATZek dinoe, Aralucekoak BATZ taldean sartu ziralako eta taldeko beste enpresetan birko-louka leitekezalako.

Araluceko 141 beharginak kalean ez geratzeko, beste urtenbide posible bat, inbersore batek enpresea erostea izango litzateke. BATZek horretan diharduela esan arren, Aralucek inobilismoa egozten deutso. Urtea amaitu baino lehen topau beharko litzateke inbersorea, likidazinoa ez gauzatzeko.

www.begitu.org

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko makineria



ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net



ARNASA GARA



www.arnasagara.eus    

Arnasguneak euskarari hauspoa ematen

Arnasguneek euskararen biziberritzean duten garrantzia azpimarratzeko **Arnasa Gara** ekimenaren aurkezpen ekitaldiak egingo dira Euskal Herrian zehar abendura arte.

Kartzela serie digitalaren aurre-estreinaldia ikusteko eta aktoreekin solasteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

DATA	HERRIA
Urriak 3	AZPEITIA
Urriak 4	OREXA
Urriak 24	ALTZO
Urriak 25	AJANGIZ
Urriak 26	LESAKA
Urriak 26	ITZIAR
Azaroak 8	DIMA
Azaroak 9	ZEANURI
Azaroak 15	ABALTZISKETA
Azaroak 16	LEITZA
Azaroak 17	ETXARRI ARANATZ
Azaroak 22	ADUNA
Azaroak 23	GOIZUETA
Azaroak 23	URNIETA (Goiburu auzoa)
Azaroak 24	LEKEITIO
Azaroak 29	ZERAIN
Azaroak 29	ARAMAIO
Azaroak 30	LEINTZ GATZAGA
Abenduak 1	MARKINA-XEMEIN
Abenduak 3	BERMEO
Abenduak 13	AIA
Zehazteke	Ipar Euskal Herrian

DIMA
AURKEZPEN EKITALDIA
+ Mokadua
2019 | AZAROAK 8 | 19:00
ABAROA ARETOAN

ZEANURI
AURKEZPEN EKITALDIA
+ Bertso afaria
2019 | AZAROAK 9 | 19:00
KULTUR ETXEAN



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



ESKUBIDEAK

Umeak be indarkeria matxista instituzionalaren biktima diranean

Bizkaiko Probintzia Auzitegiak, 2018ko abenduan, Foru Aldundia inputau eban, Igorreko Irune Costumero eta bere alabea indarrez bananduteagaitik. Izan be, Probintzia Auzitegiak "delitu zantzuak" ikusi ebazan horretan, eta bananduteko agindua emon ebenen kontrako errekursorik onartzen ez dauan auto irmoa emon eban.



Erredakzioa

Antonia Giner Cucalella, Balorzino eta Orientazino Zerbizurua, Consuelo Alonso Vergara, Hautzaro Zerbizurua, Sergio Murillo Corzo, orduan Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusia Gizarte Ekintza Sailean eta oin Gizarte Ekintzako Diputadua, eta Maika Urutxurtu Cueva gizarte langilea dagoz inputautu. eta Bizkaiko Foru Aldundiari be "jagokon" erantzukizuna egozten deuto autoak. Lehenengo aldia da, haur zerbizur bateko arduradunak akusaduen aulkian jarriko dirana.

Ha-ta guzti be, 2019ko urri bigarrean, oindino epaiketearen zain, ama-alabak bananduta jarraituten dabe. Hori dala-eta, umeak "kalte psikologiko larriak" dituala dinoe BEGITUK konsultatuko hainbat iturrik.

Asko dira banandutako ama-alabak, amak aitaren kontra umea erabilten dauan akusazinopean. Horregaitik, ustezko Guraso Alienazino Sindromeari erresistentzia egiteko, hainbat alkartek Red de Resistencia contra el SAP sarea aurkeztu eben Bilbon urri bigarrenaren 1ean, "adinbakoak arriskuan ipinten dituan andrazkoen kontrako egiturazko indarkeria hau

bisibilizau eta salatuteko".

Gure Sarea izeneko plataforma be antzeko egoerai egiten deutse aurre, umeenganako sexu abusuen kontrako lanean dihardu eta. Izan be, abusu kasu gehiengotan froga bakarra biktimearen testigantzea izaten da, eta hemen be defenseak amarengana desbideratzen dau fokoa, esanez, asmatu egin daua edo umea konbenzidu, akusazino froga bakarra desmontauz. "Ez da umea baloretan eta enfoke hau erabilten da indarkeriaren biktima dan umeak egin behar dauan ibilbide osoan" dino Gure Sareako Maitane Urizarrek. Arratiako kasu bat be heldu

da plataforma honetara.

Kasu asko heltzean jakiez. Horreetako zenbatetan apliketan daben instituzinoak, amak seme-alabetatik urruntzeko, umea erabilten dabilenaren aurreretxia, ez dakie. "Ama faltsu eta manipulazilez eta mehatxu bila dabizen andra saminduez osotutako gizarte imaginarioa dago. Batzuetan ez da esango ez Guraso Alienazino Sindromea (GAS), ez instrumentalizazioa, ez memoria faltsua, baina indarkeria patriarkal hori arlo guztietan dago (gizarte langile, epaitegietako talde psikosozial, epaile eta abar). Eta umeen babeserako dirudien leku asko GASaren aldeko lekuak dira".

Existiduten ez dan sindrome baten itzal luzea

Richard Alan Gardner AEBetako armadako psikiatruk sortu eban Gurasoen Alienazino Sindromearen kontzeptua 1985ean. Honen arabera, guraso batek, normalean amak, sinistu arazo egiten deuto umeari, sexu abusua edo tratu txarrak jasan dituala. Sindrome honen kontrako tratamendua ez da medikua, legala baino: umea amarengandik urrundu behar da.

Holan definidu eban Gardnerek ustezko sindrome hau: "...GAS garuna garbitzea da. Gurasoetako batek, normalean amak, semea edo alabea aitaren kontra ipinten dau, (...) aita semearen edo alabearen bizitzatik kentzeako, hura desagerrarazteko, eta haurra bere aitak sexu abusua egin deutzaz-

la uste izateraino heldu daiteke...". Diagnosiaren gainean hau dino Gardner-ek: "...GASa diagnostiketan danean, haurren zaintza eta custodia berehala aldatu behar dira, eta faltsukeriaz akusutako aitari emon behar jako, umeak amagaz kontakturik izan barik".

Medikuntzak ez dau hau onartzen eta horregaitik ez dago sartuta DSM-n, (*Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders*) buruko gaixotasunak sailkatzeko nazioarteko eskuliburuan. Neropsikiatriako Espainiako Elkarteak eta OMEK be asmatutako sindrome horren erabilera salatuten dabe, eta inongo alkatere profesionalak edo zientifikok ez dau onaruten. Podere Judizialaren Kontseilu Nagusiak adierazo dau honen aplikazinoak andren eta umeen giza eskubideak urratuten dituala.

Ha-ta guzti be, eta hasikera baten psikologo eta espezialistak kontuan hartu ez arren, egun badagoz GASa defendiduten daben psikologoak. Ustezko sindromearen izena aldatuta, hori bai. Holan, "gurasoen interferentzia" edo "instrumentalizazioa" erabilten dira, besteak beste, tratu txarren biktima diran andra eta biktima bikarioa diran umeen kontrako tresna eraginkor hau izentatzeko. "Gizon biolento guztiak eta euren abogaduak amari leporatzen deutsie seme-alabak instrumentalizetea. Beti. Indarkeriak eragindako kasu guztietan oinarizko argudio hori agertzen da, esanez aita kendu gura dala umeen bizitzatik. Umeak pentsauko ez balebe legez, subjektibotasunik ez balebe bezala. Hori atzerapausu larria da umeen giza eskubidei jagokie- nez" azaldu deuto BEGITURI Sonia Vaccaro psikologo forenseak.

Urizar, Gure Sarea taldeko ki-dearen arabera, "1989an, umeak

Olaxte
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

Zugaitik BEGITUTen dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA
• Psikologia
• Logopedia
• Fisioterapia
• Ulermen tailerra
• Jarrera arazoak
• Emozioen tailerra
• Psikomotrizitatea
• Adimen emozionala
• Trebetasun sozialak
• Estimulazio goiztiarra
• Eta askoz gehiago...
652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

Kili-Kili
Antzoki eta Puzteak
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 63 81

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK
Elexalde, 33 D · 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 - 505 554 018

izkaifisios
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igorre
94 631 35 08
igorre@izkaifisios.com
ANDRA MARI KLINIKEA
Portzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakoo@izkaifisios.com



Idurre Bideguren

Bozkatu
—

ehbildu

Erabaki
BAIETZ!

Oskar Matute



begitu
arratia ubide zeberio

**2019AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN!
URTEA AMAITU ARTE BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2019an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?
Aurreko hamabostaldiko irabazlea Ane Arrese izan da.

Hori egiteagaitik Areatzako Bainuetxean lagun birezko zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.

Areatzako Bainuetxea
★★★
www.hotelbainuetxearenatza.com

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
Aukeratu urteko kuota: 35€ 55€ 75€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

eskubideen subjektu gisa onartu ziran, eta estadiak eskubideok betetera eta bermatzera behartu ebazan. Sexu abusuen kasuan, haurtzaroren garapenari buruzko ezagutzak argi itxi dau Haurren Kontrako Sexu Abusuaren (HKSA) kontakizun baten aurrean haurrak ez daukela guzurrik esaten. Aurre- rapena nahiko azkarra izan zan, mendean zehar Henry Kempek tratu txarreko haurren sindromea definitu eban, azkar hedatu ziran babes sistemak ezarri ziran, eta abar. Alkarteak haurren eskubideen alde egindako lan handiak eta sexu erasoaren kontrako mobimentu feministaren salaketak haurren aurkako sexu abusuak ikusgarri egin eben". Baina oin, "lege maila eta zientziako aurre- rapenak, eta umeen eskubideen gaineko kontzientzia sozialaren hazkundeak harresi bat topau dabe" dino Urizarrek.

Indarkeria instituzionala

Euskal Autonomia Erkidegoan, Balora izeneko "Arrisku eta desanparo egoeren larritasuna balio- esteko" tresna dago. Udal eta lurralde mailako gizarte zerbitzuetan derrigor bete beharrekoa da eta 2017an eguneratu zan.

Tratu txar psikiko atalean, "Haur edo nerabea erabiltea guraso figuren arteko gatazketan eta haur edo nerabeentzat esanguratsuak diren eta bizikidetzan nukleoko parte diren beste senide batzuen arteko gatazketan" azpiatala dago. Eta definizioa hau da: "Bi guraso figurek aktiboki erabiltzen dute haurra edo nerabea bata besteari kalte egiteko eta/edo haurra edo nerabea beste guraso figuren- gantik behin betiko urruntzeko".

Balora-ren definizioa eta GAS- arenaren arteko antzekotasuna beraz, nabarmena dala dino Va-

ccaro psikologo forenseak: "Eusko Jaurlaritzak apliketan dauan protokoloa GAS dan galdetzen deustazu, bai. Bai, hala da. Eta sistematikoki apliketan da".

Foru Aldundiko Familia Topaguneetan be sistematikoki apliketan dala Gardner-en mehatxuaren terapia jakinarazo dabe hainbat alkartek. Umeari aitagaz ez bada- go, amagaz barriro inoz ez dala egongo mehatxatutean oinarritzen da "terapia" hau. "Aita maitatu behar dozu, zure aita ona da. Aita-alabatan olgauko gara. Eta umeak esaten dauanean amagaz egon gura dauala, 'aitagaz ez bazara egoten, ez dozu ama gehiago ikusiko' esaten deustie" dino Iru- ne Costumero GAS-aren kontrako Plataforma Lunako kideak.

Plataforma hau 2009an sortu zan GAS eta familia topaguneen kontra. "Topagune honek ez dira inoz izan eta ez dira inoz neutra- lak izango, ez dira olgetan ibilteko guneak eta ez deustie biktimai ezelangoko segurtasunik emoten. Ze hara derrigor joaten diran ama eta umeak biktimak dira. Ezin dogu ahaztu" dino Ester Ruiz Plataforma Lunakoak Tribuna Feminista aldizkari digitaletan. "Tratua umiliagarria da, urruntze-aginduak ez dira beteten eta umeak aitagaz hartu-emonetan jartzera behar- tzen dira, gura ez badabe be".

Balora-ren erabilerea ama erruduntzat jotzen dauan genero aurrerexi misoginoan oinarritzen da. Teorian, guraso biai aplikau ahal jako. Hobeto esanda, aplikau behar jako. Baina andrai apliketan jakie bakarrik edo ia bakarrik. Daturik ez dago, ez diralako publi- koak. "Ez daukagu daturik baina gizonai apliketan jakon porzenta- jea minimoa da" azaldu deustie BEGITURI Red de Resistencia contra el SAPeko kideak.

"Eusko Jaurlaritzak apliketan dauan protokoloa GAS dan galdetzen deustazu, bai. Bai, hala da. Eta sistematikoki apliketan da"



Alkarte honeetarako, instrumen- talizazioa deiturikoa, indarkeria matxista zuzena eta bikariorako tresnarik eraginkorra bihurtu da. Izan be, gizon batek, andrea- ri instrumentalizazioa egotzi ezker, umeen kontra indarkeria erabilteko inmunidadea lortzean dau askotan. Baita derrigorrezko custodia partekatua edo amari custodia kentzea be. Indarkeria instituzionalaren ondorio zuzena da, umeen sufrimentu larria eta denporan asko luzatuten dana, ume baten bizitza suntsitu leikena; kalte psikologiko larrietatik hasi eta heriotzeraino heldu daitekena. Eta umeen oinarritzko giza eskubideak,

ezelangoko babes barik geratzen dira.

Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunak, erasotzaileari bisitak kentzea eta Adingabearen Defen- datzaileak be erasotzaileari guraso- ahala kentzea gomendatu arren, gurean instituzinoak, ama eta umeak zigortzen ditu, amak tratu txarrak edo sexu abusuak salatuten baditu, edo beste edozein kasutan, egiturazko indarkeria matxistaren elementu honen bitartez.

Umeen babeserako tresnak eta lan moduak aztertzea eta instituzi- noetako behargin guztiai genero ikuspegiko formazioa emotea, ezinbestekoak dira umeen bene- tako babeserako.

Red de Resistencia contra el SAP-en manifestua

Manifestu hau sinatzen dogun erakundeok salatu egiten dogu emakumeenganako eta euren seme eta alabenganako indarkeria instituzionala eta haurren eta nerabeen eskubideen bortxaketea (justizia patriarkalaren ondorio zuzenak biak).

Sarri erabilten da Gurasoen Alienazio Sindromea dalakoa (GAS) amai seme-alaben zaintza kendu, eta aitai emoteko, aita horreek indarkeria matxisteagaitik edo haurren aurkako sexu abusuengaitik salatuak edo zigortuak izan badira be. Ustezko sindrome hori izentatzeko zenbait eufemismo be erabilten dira: "amaren interferentzia", "amak egindako instrumentalizazioa", "oztopatzea"...

Iruzurrezko sindromea edo adiera bereko leungarri horreek argudiatzen ditue, era berean, Administrazioarentzat lanean dabizen aditu askok, euren txostenetan: familien alkargune zerbitzuetan, organo judizialerako talde psikosozialetan, oinarritzko gizarte- zerbitzuetan, Aldundiko Haurren Zerbitzuan eta abar. Justizian, era berean, hainbat eta hainbat dira GASean soilik oinarrituta amai seme- alaben zaintza kentzean deusteen epaileak.

Patroi berari jarraitzen deustie jarduketa guztiak: umeen testigantza

entzungor egitea, eta horren ordez, esatea ama dala erruduna, umeak aita (askotan, erasotzailea be badana) arbuiatzen badabe. Jokaera hori, duda izpirik barik, andrakanako tratu txar instituzionalen alorrean sailkatzen da.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak berak publikoki adierazo dau sindrome faltsuaren aplikazioak andren eta umeen giza eskubideak urratu, haurrak isildu arazo "terapia" hertsagarria inponidutea dakarrela. Zentzu berean egin dau berba Neuropsikiatriako Espainiako Elkarteak eta Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) be, eta salatu dabe asmatutako sindromea argudio gisa erabiltea. GASak, beraz, ez dauka aintzatespen ofizialik, eta ez dau inongo alkarte profesional edo zientifikoren babesik.

Gauzak holan, ez da nahikoa esatea "ez dala gomendatzen" GASa erabiltea. Eta ez da nahikoa, indarkeria matxistaren aurkako jarduketa judizialerako erispideen gidak egitea be. GASa erabiltea ekidin behar da: lortu behar da zuzenbidearen kontrako izatea ustezko sindrome hori argudiatzea gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak jokoan dagozan edozein eremutan (adinbakoan zaintza eta gurasoen eta seme-alaben arteko harreman moldeak diranean auzitan dagoana).

Badakigu zeren kontra gabizen burrukan. Badakigu emakumeon eskubideen aurrerabidearen aurkako sektoreak gizartearen eremu guztietan dagozala (komunikabideak, politikea, epaitegiak, profesionalen elkargoak, hezkuntza...). Baina badakigu, era berean, alkarregaz eta antolatuta indartsuagoak gara.

Osabiazko larri kezaketarako

Gure

irastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezuntza
Lehen Hezuntza
Derrigorrezko Bigarren Hezuntza
Datxilergoan
Hezuntza Zuloan
2 urtebiu 18ra

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA

BOLUMEN HANDIKO HONDAKINEN DOAKO BILKETA ZERBITZUA

Kalean utzi **AURRETIK** dei iezaguzu

94 631 17 17

Gainera, Igorreko Garbigunera eramateko aukera duzu - 94 631 52 91

ARRATIAKO KALENTURAK

Ipuin Erotikoen Lehiaketa

Oinarriak:

1. Lehiaketa honetan hamasei urtetik gorako edozein personak hartu leike parte.
2. Lan guztiak argitaratu bakoak eta euskeraz idatziak izan behar dira.
3. Lanak ipuin erotikoak izan behar dira eta DTN A4 orrietan makinaz tarte bikotean idatzita aurkeztu behar dira. Lanen luzerera lau eta zortzi orrialde artekoa izan behar da.
4. Lanetan ez da egilearen datuak ipiniko, izenburua bakarrik. Egilearen datuak (Izen-abizenak, adina, telefonoa, helbidea eta lanaren izenburua) gutunazal zarratu baten sartuko dira eta gutunazal horren azalean lanean ipini dan izenburu bera ipini behar da.
5. Lan originala, hiru kopia, eta egilearen datuak dituan gutunazala beste gutunazal handiago baten sartuta, honako helbide honetara bialdu behar da: Zertu Kultur Elkartea, Herriko Plaza 24, 48142 Artea (Bizkaia). Posta elektronikoz bialdu ezkeru, gehitu artxibo bi, bat lanerako, bestea datuatarako, eta bialdu helbide honetara: begitu@topagunea.com.
6. Hiru sari emongo dira: lehena 600 eurokoa, bigarrena 400 eurokoa eta Arratiako onenari, 250 eurokoa.
7. Lanak bialdatuko azken eguna 2019ko zehendiaren 16a da.


zerlu
kultur elkartea

MENDIA

David Puente bizikletan eta Josu Bengoetxea mendi lasterketan ZeberioXTrem-eko irabazle**Erredakzioa**

Urri bigarrenaren 13an jokatu zan aurtengo ZeberioXTrem. Mendi bizikleteagaz egiteko gogortasun maila desbardinako hiru proba egon ziran XTrem 43 kilometrokoa; luzea, 31 kilometrokoa eta laburra 12 kilometrokoa. Trail edo mendi lasterketea be egon zan, 15 kilometroko mendi lasterketea, hain zuzen be.

Bizikleta XTrem proba David Puentek irabazi eban eta Ivan Lopezek eta Unai Mateosek osotu eben podium. Proba luzeari jagokonean, Joseba Fernandez, Aitor Abadiano eta Carlos Garcia izan ziran lehenengo hirurak hurrengo hurrengo. Laburrean umeak hartu eben parte eta antolatzaileak ebatzi eben sailkapenik ez egitea.



Mendi lasterketa edo trail-ari jagokonean, Josu Bengoetxeak irabazi eban proba, Xabier Garagarzak bigarren egin eban eta Josu Araiztegi izan zan hirugarrena.

PELOTEA

Zeberioko umeak herrian bertan ikasi ahal izango dabe pelotan**Erredakzioa**

Pelotan ikasteko, Zeberioko umeak oin arte Zaratamo, Igorre edo Orozkora joan behar izan dabe baina oingo ikasturtean, barikuetan, 17:00etatik 19:00etara, Zeberioko plazako frontoian ikasi ahal izango dabe. Pelota eskolearen asmoa entrenamentuak astean bitan egitea da.

Hamazortzi ume dagoz prest

eskolan hasteko eta edade eta mailaren arabera talde bi sortu gura ditue. Eskola arteko txapelketako partiduak eta lagunartekoak antolatutako asmoa be badauka eskola barriak, herriko umeak herrian bertan jokatu dagien. Momentuz, eskolaz kanpoko ekintza lez jardungo dau eskoleak, baina ume zein gazte gehiago batzean diranean, kluba sortzeako asmoa dago.

MENDI DUATLOIA

Gernikako Javier Goitiak irabazi eban Zeanuriko Mendi Duatloia**Erredakzioa**

Gernika-Lumoko kirolaria izan zan lehenengoa helmugara heltzean 01:21:36 kronoagaz eta 25 urte azpiko kategoriako txapela be irabazi eban. Haren atzetik Iñaki Isasi Flores Aiarakoa heldu zan eta Master 40ko txapelduna izan zan. Elite mailan, Xavier Madrona Vila izan zan irabazlea. Lehenengo andrazkoa, Maria Gomez Ijalba izan zan eta lehenengo arratiarra Arkaitz Maguregi Zabala Igorrekoa. Guztira 55 galaparik amaitu eben

Zeanurin urri bigarrenaren 26an jokaturako proba.

Erreleboka

Erreleboka, hau da bikotekide bat galapan eta bestea bizikletan, Iñigo Aseginolaza Garmendiak eta Iñigo Gonzalez Laskibarrek osotutako bikoteak irabazi eben proba.

Onditx Iturbe Arginzoniz, Gorbeia Suzienen lehen andrazko arratiarra, eta Kimetz Iturbe Arginzoniz Igorreko neba-arrebak osotutako bikoak laugarren egin eban.

FUTBOLA

Hirugarren postuan dagoz sailkapenean andrazkoen Arratia A eta B taldeak**Erredakzioa**

Igazko denporaldian mailaz igo eta gero, liga hasiera sano ona egiten dabil andrazkoen Arratia A taldea. Urriaren 20an, San Ignacio liderraren etxean 0-4 irabazi eta gero Arratiak hartu eban lidertza, hurrengo astegoienean ostera Urbietan Pradejon taldeagaz bardindu ostean, lehenengo postua galdu eta hirugarren dira oin arratiarrak 16 puntugaz, zazpi jardunaldiren ostean.

Datorren partidua hilaren 2an, 16:30etan, jokaturako dau Arratiak etxetik kanpo Tolosa taldearen kontra.

Arratia B taldeak barriz, atzen partidu bietatik bata galdu egin dau, Leioako Emakumeak B 1 Arratia 0, eta bestea, sano erraz irabazi, Arratia B 16 Basauritar Emakumeak 0. Hirugarren postuan dago Arratia B sei jardunaldiren ostean 13 puntugaz.

Datorren partidua hilaren 3an, 16:00etan, jokaturako dabe arratiarrak etxetik kanpo Mungia taldearen kontra.

Gizonezkoak

Arratiako gizonezkoen A taldeak txarto hasi dau denporaldia. Joka-

tutako atzen partidu biak galdu ditu, 1-2 Trapagaran taldearen kontra eta emoitza bardinagaz urri bigarrenaren 27an etxetik kanpo Astrabuduakoren kontra. Arratia atzenaurreko postuan dago 6 jardunaldi jokatu eta gero 3 puntugaz.

Datorren partidua hilaren 1ean, 16:00etan, jokaturako dabe arratiarrak Urbietan Loiu taldearen kontra.

B taldeak ostera jokaturako atzen partidu bietako bat galdu, 2-1 Padura Bren kontra eta urri bigarrenaren 26an Urbietan jokaturako 2-0 irabazi eban Derio Bren kontra. Arratia B 9. dago

sailkapenean 6 partidu jokatu ostean 7 puntugaz.

Datorren partidua hilaren 1ean, 17:00etan, jokaturako dabe arratiarrak etxetik kanpo Otxarkoaga B taldearen kontra.

LemoaHarrobi

Ezkurdi Aren kontrako (2-0) eta Artibairen kontrako (1-2) atzen garaipen bien ostean, seigarren postuan dago Lemoako taldea sei jardunaldi jokatu eta gero 10 puntugaz.

Datorren partidua hilaren 1ean, 12:30etan, jokaturako dabe Lemoakoak Arlonagusian Mungia A taldearen kontra.



Andrazkoen Arratia taldeak San Ignacioren kontra jokaturako partidua.

PELOTEA

Julen Olaizola, Amaia Alday eta Ibon Larrinaga izan dira Dimako Udagoieneko Pelota Txapelketako irabazleak**Erredakzioa**

Dimako Udagoieneko Pelota Txapelketako finalak urri bigarrenaren 25ean jokatu ziran.

Lehenengo finala Gazte mailakoa izan zan eta Ibai Cimadevilla igorretarrak eta Orozkoko Julen Olaizolak jokatu eben. Orozkokoak irabazi eban tantu bakar batengaitik, 22-21, emozioz betetako partiduan. Hurrengo finalean, Leire Garai gasteiztarra eta Amaia Alday dimoztarrak neurtu ziran. Hasikeran Garai ibili zan aurretik, bere kalidadea erakutsiz, baina partiduaren bigarren zatian dimoztarrak, Garai nekatutea lortu eban eta erakustaldia emonez amaitu eban partidua 22-19 emaitzagaz. Nagusien mailan, Kimetz Zapiko dimoztarrak eta Usansoloko klubean jokaturen dauan Ibon Larrinaga neurtu ziran. Larrinaga aurrean ipini zan hasikeratik

eta 22-10 amaitu zan partidua.

Aitor Elordi eta Oier Etxebarria Promozino Mailako Txapeldunak, Txumuluxueta alkatereko Leire Atutxak eta Joseba Etxebarria klubaren laguntzaileak ipini eutseezan txapelak irabazleak.

Finalak baino gehiago

Jaialdia, finalak baino gehiago izatea gure eben Txumuluxue-

ta alkaterekoak, eta musikea eta jantzak ez ziran faltau Dimako txapelketako bosgarren edizioan. Aurreko ekitaldietan legez, umeen partiduak hasi zan eta herriko 12 ume hartu eben parte. Ondoren, finalak hasi aurretik, Bizkaiko Pala Txapelketako partidu egon zan. Bertan, Zeanuri eta Getxo aurrez aurre. Getxok irabazi eban 30-20.



Leire Atutxa eta Amaia Alday.



Aitor Elordi eta Ibon Larrinaga.

MENDIA

Gorbeia Suzien 2020 Munduko Txapelketaren barruan egongo da



Jurek Ziemkiewicz, Gorbeia Suzieneko zuzendaria eta Peter Worth Skymaneko burua Italian.

27an izango da.

Hiru kontinente eta 13 herrialdeko 17 lasterketak osotuten dabe Munduko Txapelketako zirkuitua. Lasterketa bakotxean korrikalariak puntuatu egiten dabe eta atzenengoan, gehien puntuatu daben 60 korrikalari baino ez dabe hartzean parte, zirkuituko onenak. Lau lasterketetan, puntuazio bikotxa lortzean dabe korrikalariak eta Gorbeia Suzien da euretako bat. Puntuazio bikotxakoak super sky probak deitzean dira. "Gorbeia Suzien izango da finalurreko azkenengo proba, super sky erakoa. Lasterketarik inportanteena izango da finalera heltzeako puntuak lortzeako, eta munduko korrikalari onenak etorriko dira" azaldu deutso BEGURI Jurek Ziemkiewicz Gorbeia Suzien mendi lasterketako zuzendaria.

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 17an, Italiako Limone Sul Gardan emon eben

jakitera, Gorbeia Suzien 2020, Migu Run Skyrunners Series zirkuituan egongo dala Zeanuriko lasterketea. Urri lehenengoaren

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrak Taldeak, Gernikakoagaz bat egin dau Gernika/Arratiko taldean

Erredakzioa

Arratiko Zekorrak taldeak Gernikako bigarren taldeagaz bat egin dau eta Euskadiko Lehenengo Mailan jokatu dabil.

Arratiako eta Gernikako errugbi talde bi honeek, lehenetik be, batuta egon dira umeen kategorietan jokari falteari aurre egiteko. Aspaldion jokari faltea be igarri egin da nagusietan, talde bietan. Denporaldia jokari nahikoagaz hasi arren, lesinoak dirala edo jokariaren bizitza personala dala, ez Arratiakoak ez Gernikakoak ez eben izaten jokari nahikorik denporaldia amaituteko. Horregaitik umeen katego-

rietan eukien hartu-emona nagusi mailara zabaltzea ebatzi dabe eta talde bien artean talde jentetsu bat egin dabe, denporaldia amaituteko lain jokari izateko. "Errugbia kirol minoritario bat izanda, ikusten da azken urteotan, batzeak dakarrela salbazinoa. Ez bakarrik guk, Plentziakoak eta Mungia-koak batu dira, Irun eta Baztan, Donostiakoak eta Hernanikoak... Ikusten da futbolak zapalduten dauala dana, eta guri kalte handia egiten deusku futbolak" azaldu deutso BEGURI Unai Zuluaga Arratiko Zekorrak taldeko presidentea.

Gernikak talde bi daukaz. Bata Ohorezko Maila Bn eta bigarrena

Euskadiko Lehenengo Mailan. Bigarren taldeagaz egin dabe bat Arratiakoak eta bigarren mailatik lehenengora pasau dira.

Denporaldia ez da ondo hasi

Hiru partidu jokatu, seigarren da Gemika/Arratiko sailkapenean 4 puntugaz. Kanpoan jokatu partidu biak galdu egin dabez eta bat irabazi, etxean jokatu. Iruñeako La Unicaren kontra, lehenengo jardunaldian eta Errioxako Domiberiaren kontra laugarrenean galdu eben. Bigarren jardunaldian atsedaldia izan eban Gemika/Arratikok eta hirugarrenean irabazi egin eban AVK Bera Beraren kontra.

HERRI KIROLAK

Irati Astondoa eta Karmele Gisasolak irabazi dabe 5 Kirol Txapelketea

Herri kirol pentatloiairen palmaresa andrazkoetan inaugurau dabe kirolari bizkaitarrak.



Astondoa eta Gisasola txapelakaz.

Erredakzioa

Basque Sport-ek lehiaketa hau antolatu dauan lehenengo aldia izan zan urri bigarrenaren 19an, Iruñean jokatu zan proba, eta Astondoa eta Gisasola "Zelai III." bizkaitarrak, Maika Ariztegi eta Virginia Finol nafarrai irabazi eutseen. Zeanuriztarrak eta mallabiztarrak, 39 minutu, 20 segundo eta 89 ehuneko behar izan ebezan lanak amaituteko, nafarrak baino 49 segundo gitxiago, hain zuzen be.

Lehenengo proba, 62 kilo eta erdiko harri biribilari 45 jasoaldi egin eta metro bateko enborra moztutea zan eta bizkaitarrak bentajea lortu eben. Ondoren, txanda librean 25 kiloko txingakaz 10 plaza osotu behar ziran eta ingudeagaz ehun altxaldi. Baina hurrengo proban, arpanagaz, baliobakotzat emondako mozketa bateguz hasi ziran eta aurkariak

aurrea hartu eutseen. Dana dala, atzen minutuetan bizkaitarrak nagusitu ziran.

Azkoran zentrauta

Irati Astondoa irabazteko konfiantza handi barik joan zan proba. "Banenkan azkoran eta trontzan ondo ibiliko ginala baina bildurra neukan, ingudean eta txingan, Ariztegi eta Finol Euskal Herriko eta Nafarroako txapelkunak diralako". Gainera, denpora gitxi euki ebela prestatzeko dino eta Gisasolagaz batera, pare bat entrenamentu baino ezin izan dauala egin, denporaldi honetan, biak topera ibili diralako erakustaldiakaz. Eta lortutakoagaz pozik egon arren, Astondoa ez dauka pentatloian jarraituteko asmorik "proba honek bizitzan behin egiteko dira" adierazo deutso BEGURI txapelkunak. Oin, azkoran zentrauko da, abenduan Donostian jokatu dan Urrezko Aizkorari begira.

 <p>Euskal Herria Lotea 30 €</p> <p>6 produktu:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Arabako Errioxako ardo beltza2. Bizkaiko Sokonusko turroia3. Gipuzkoako solomo ondua4. Iparraldeko gazta zatia5. Iparraldeko pate6. Nafarroako cherry piperrak, gazta beteak	 <p>Bizkaia Lotea</p> <p>11 produktu:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Bizkaiko sagardoa (Uribealde)2. Txakolina (Arratia)3. Gurinezko pastak (Enkarterriak)4. Inbaur-saltsa turroia (Bilboalde)5. Ahabi txokolata (Bilboalde)6. Boletus Edulis (Txorierra)7. Urdalazpiko Iberikoa (Bilboalde)8. Txorizo Iberikoa (Bilboalde)9. Gazta 250-275gr (Arratia)10. Hegaluzea (Busturialdea)11. Sagar-gozokia (Lea-Artibai) <p>50 €</p>	 <p>Eko Lotea</p> <p>8 produktu ekologiko:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Arabako Errioxako ardo beltza2. Kafea3. Kuskusa4. Shiitake Patea5. Kakao eta hur krema6. Marmelada7. Txokolatetzko galletak8. Sagar snack-a <p>28 €</p>	<p>Gabonetan eroan Euskal Herria zure mahaira!</p> <p>Hamabost lote & otzara mota baino gehiago aukeran!</p> <p>Baten bati oparitu nahi diozu? Ba guk oparitzeko bideko dirugu! Eta, nahi izanez gero, nahi duzun lekura bidaliko dugu!</p> <p>Zazpi Haizetara & Euskal Herriko Produktuak Agirre Lehendakaria 11 94 631 92 43 zazpihaizetara.arratia@gmail.com</p>
--	--	--	---

DISKOA ETA LIBURUA

Gontzal Mendibilen *Biok* diskoa eta *Bittor eta biok* liburua kalean

Zemendiaren 3an, 19:00etan, Bilboko Arriaga Antzokian aurkeztuko dau *Biok* izeneko diskoa. Gontzal Mendibil kantuan hasi zaneke 45 urte beteten dira eta bere hamazortzigarren diskoa da hau. Diskoagaz batera, *Bittor eta biok* izeneko saio-narrazio liburua plazaratu dau.

Erredakzioa

Biok diskoan, zeanuriztarrek, euskal kultura eta euskerearen "zentzu matriarkala" dakarku. Bere esanetan "aitaren etxetik, amaren sua berbiztuteko sasoiari gagoz". Eta hori adierazteko hiru kanta dagoz lan barrian, *Amaren sua*, *Ama Gorbeia* eta *Agur ama*. Atzenengo hau, Lauaxeta hil eben aurreko orduetan idatzitako poema musikatu da.

Aitatzekoak be badira lan honetan, Mendibilek berak idatzitako *Bizitzen*

ikastea, Bittor Kapanagari dedikatua eta *Alba zu! Altsasu!* Altsasuko gazteai egindakoa. Ainara Maia, Koldo Izagirre, Pako Aristi eta Karnele Jaioeren poemak be musikatu ditu.

Angel Unzu, Jose Luis Canal, Philippe Ezkurra, Jou Gonzalez, Alberto Rodriguez, Rober Caballero eta Blas Fernandez musikari, eta Lara eta Ana Sagastizabal kantarien kolaborazioagaz egin dau diskoa.

Arriagako aurkezpenean diskoko kantu gehienak, ez badira danak, joko ditu. Baita 45 urte honee-

tako kanturik esanguratsuenak be, 1974ko abenduan sortutako *Ba-gare* tartean.

Behin gertatu zen

Liburua, diskoa eta Arriagako kontzertua prensaurrian aurkezteko, egileagaz batera, Udane Goikoetxea kazetaria eta Iñaki Elorriaga Adela alkarteko kidea egon ziran. Izan be, ELA (Alboko Esklerosi Amiotrofikoa) gaixotasunak jota bizi diran personeren sentipenak jasota, kantu bat egin dau Gontzal



Udane Goikoetxea, Gontzal Mendibil eta Iñaki Elorriaga.

Mendibilek, *Behin gertatu zen* izeneko. Kantu hau be kantauko dau Arriaga Antzokian.

Kapanaga, "Euskal Sokrates"

Bittor eta biok. Bittor Kapanaga "Euskal Sokratesen" ondarea liburuan Kapanagaren pentsamendua jasoten dau Gontzal Mendibilek. Kontaketea, Kapanaga hil zan gauean hasten da bien arteko alkarizketea izango balitz moduan. "Liburu hau 2011ko garagarilaren 13ko gauean hasten da. Bittor Kapanaga, konorte barik, azken arnasetan dago Gasteizko Santiago ospitalean eta gau luze horretan ni

neu bere ondoan jagole eta zelatari nagoarik, biok biotara hainbat urtetan izan genduzan alkarren arteko solasaldia balitz, berarengandik hartutako eta ikasitako gogoe-tak eta kontaketak" topauko dituala irakurleak bertan dino egileak.

Euskal kulturgileak, hainbat ezizen ipini eutsien Kapanagari bere pentsakereagaitik; "Euskal Sokrates", "Druida", "Profeta" edo "Azitia", dira ezizen horreetako batzuk.

Joseba Sarrionandiak egin deustso liburuari hitzaurrea eta Juan Manuel Etxebarriak orraztu dau euskerearen aldetik. Ediciones Beta argitaletxeak argitaratu dau.

LEHIAKETEAK

Hilaren 15ean zarratuko da Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketan parte hartzeako epea

Lehiaketeak Basauri eta Dimako ipuin erotikoen lehiaketen oinorde eta segidea izan gura dau eta izenean Arratia agertu arren, euskeraz idazten dabene mundu osoko idazleak hartu lekie parte. Zertu Kultur Elkarteak antolatzen dau lehiaketea.

Erredakzioa

Irabazleak 600 euro izango dauz saritzat eta sari banaketea Gabon inguruan egingo da Igorreko Lasarte Aretoan.

Beste sari bi egongo dira, 400 euro eroango dauz bigarren egiten dauanak eta 250 euro jasoko ditu Arratiako lanik onenak. Lehiaketea urteetan egingo balitz eta testu kopuru egokia egon ezker, Txalaparta argitaletxea prest egongo litzateke Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketan parte hartutako ipuin onenak Literaturara bilduman argitaratzeko.

"Pasau dira 12 urte Basaurikoa egin zanetik eta gizartea be aldatu egin da" dino Alvaro Rabelli Zertukoak. Bere esanetan, Basauriko lehiaketak balio izan eban hurrengo belaunaldia literaturari egokonean zelan etorren ikusi ahal izateko. "Belaunaldi horretako batzuk profesionalak dira egun: Igor

Estankona, Julen Gabiria, Mikel Taberna... Andrazko idazle asko izan ziran azkenak, Irati Goikoetxea eta hainbat eta hainbat, oin lan potoloak ateraten hasi diranak". Gizartea aldatu da eta oin beste kezka batzuk dagoz. Sexuagazko hartu-emonak be aldatu egin da. Ikusiko da zelan islatzen dan hori narrazio lehiaketan.

Erotismoa euskeraz

Gizartearen aniztasuna eta erotismoaren ugaritasuna jaso, eta bizitzaren alderdi hau be euskeraz bizi eta gozatzeko aletxoak ipini gura dau lehiaketeak. Momentuz narrazio gitxi heldu badira be, Bizkaia eta Arabako lurraldeetako edade espektro zabalekoak dira egileak.

Literatura erotikoa idaztea gatxa dala, mito bat baino ez da Rabelliren ustez. "Ez da beste edozein narrazio baino gatxagoa. Azken baten idaztea da. Emoten dau



oso bide estu baten ibili behar dala, literatura erotikoa asko mugatzen dauala, baina ez dauka zertan mugatu. Zientzia Fikzioa, edo historikoa, edo gaur gaurkoa izan daiteke. Nik uste dot barne biluzte bat dala, eta hor ikusten da ia biluzteko gai garan. Erronka polita da". Alde biko erronka. Alde batetik barne biluzte sentimenduagaitik, eta bestetik, hizkuntzara eroan behar dalako sentimentu hori.

BERTSO AFARIA

Nerea Ibarzabal eta Etxahun Lekue Arantzazun**Erredakzioa**

Arantzazuko Bildu Kultur Batzordeak, sanmartinetako IX. bertso afaria antolatu dau zemendiaren 8rako. Afarria, 21:00etan izango da Arantzazuko Herriko Tabernan eta Nerea Ibarzabal eta Etxahun Lekue bertsolariak kantauko dabez bertsoak.

Afarirako txartelak Arantzazuko Herriko Tabernan, Montero tabernan eta Igorreko Herriko Tabernan erosi daitezke hilaren 6ra arte, 20 euroko prezioan.

Bertsolariak

Nerea Ibarzabal Salegi (Markina-Xemein, 1994) kazetaria da. 12 urteagaz hasi zan bertsoetan. Lea-Artibaiko Txapelketan 2012an kantau eban lehenengo aldiz, eta 2014an txapelduna izan zan.

2016ko Bizkaiko Txapelketako finalista izan zan eta 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartu eban. 2018an, Bizkaiko Bertsolari Txapelketan botatako bertso bat biral bihurtu zan, Berri Txarrak-en abesti baten musikea erabili eban bertso horretan.

Etxahun Lekue Etxebarria (Larrabetzu, 1979) bertso irakaslea da. Magisteritza ikasketak ditu eta bertso irakasle lanetan ibili da hezkuntza arautuan. 9 edo 10 urteagaz hasi zan bertso-eskolan. Larrabetzuko Itallen bertso-eskolako kidea da. Eskolarteko eta gazte sariketetatik pasata, 2002tik hasita Bizkaiko Txapelketako final guztietan egon da eta 2016an txapela eskuratu eban. 2005, 2009, 2013 eta 2017 urteetako Txapelketa Nagusietan finalurrekoetara heldu zan.

ARANTZAZUKO SAN MARTINETAKO
IX. BERTSO AFARIE
Azaroak 8 - 21:00etan
Arantzazuko Herriko Tabernan
SARRERAK 20€:
ARANTZAZUKO HERRIKO TABERNAN
ARANTZAZUKO MONTERO TABERNAN
IGORREKO HERRIKO TABERNAN

ZINEKLUBA

Chloe Zhaoren *The Rider* Igorreko Zineklubean



Erredakzioa

Hilaren 7an, iluntzeko 20:00etan, Igorreko Zineklubak Chloe Zhao zuzendariaren *The Rider* filma eskainiko dau Lasarte Aretoan.

Filmak Brady izeneko rodeoetako izar baten istorioa kontetan dau. Zaldi hezitzaile bikaina da Brady, Amerika sakonenean. Baina istripu larri baten ondorioz, medikuak debekatu egiten deustso barriro zaldi-gainean ibiltea, barriro jausi ezker, hil egingo litzatekelako. Orduan bere bizitzaren esanguraz hausnartu beharko dau, identitate krisi sakonari aurre eginez.

Chloe Zhao

Chloe Zhao (Beijing, 1982) zuzendari eta gidoigilearen bigarren filma da *The Rider* (2017). Debuta zuzendari moduan, Sundanceko zinemaldian egin eban, *Songs My Brothers Taught Me* pelikuleagaz. *The Rider* filmak saria jaso eban Cannes-en, 2017an.

JAI SOLIDARIOA

Jon Enbeitak eta Rafa Rueda pobrezia-aren aurkako kontzertuan

Erredakzioa

Caritas Arratiak, Pobrezia-aren Egunaren harira, alkartasun kontzertua antolatu dau datorren zehazkiaren 15erako, 19:00etan, Igorreko Kultur Etxean, *Kanta pobrezia-aren kontra* izenburuagaz.

Hirugarren urtea da Pobrezia-aren aurkako Mundu Eguna, Arratian ospatzen dala, aurten be Caritas Arratiaren eskutik. "Egunak helburu bikotxa dauka. Alde batetik, gure artean dagoan pobreen egoera azaleratu eta herri kontzientzia handitzea. Beste alde batetik, Bizkaiko pobrezia arlo zehatz bateri laguntza eskaintzea. Lehengo urteetan JEMA (Gazte atzeritar lagundu bakoak) eta prostituziotik urten gura daberen andrak lagundu badira, Harribide eta Askabide alkarteen bitartez, oingoan jantoki sozialen egoera

hartuko da kontuan" azaldu dabe Arratiako eleizatik.

Kantaldia

Jon Enbeitak, Rafa Rueda eta Txus Aranburu izango ditu lagun kantuan. *Iraungo dut* bere azken diskoaren kantak eta aspaldiko kanta klasikoak kantauko ditue. EALE jantza taldeak, Igorreko Andra Mari abesbatzak eta Arratiako KTko abeslariak be hartuko dabe parte alkartasun kontzertuan.

Gainera, Genma Orbe igorreztarak eta Caritaseko langileak, jantoki sozialetan egindako lanaren testigantza personala emongo dau.

Sarrereak ez dauka prezio finkorik, borondatea izango da, aforoa bete arte, eta batutako diru guztia Bizkaiko jantoki sozialetara bideratuko dau Caritasek. Ekitaldiak Bedia eta Zeanuriko udalen babesa dauka.



MUSIKEA

Azaro Musikala Artean



Erredakzioa

Zemendian, Santa Zezilia, musikearen zaindariaren eguna ospatzen dala atxakian, Azaro Musikala ospatuten da Artean. Holan, hile osoan zehar kontzertuak eta ekintza musikatuak egongo dira.

Jazz musika estiloagaz hasiko da zemendia. Izan be, hilaren 1ean, 20:30ean, Herriko Bentan, Carlos Velasco Organ Trioren jazz estiloko musika entzuteko aukerea egongo da eta hurrengo barikuan, hilak 8, In Bigu Gypsy Jazz taldeak bere swing eta jazz arteko musika jantzagaria joko dau Kultur Etxean, 20:30ean. Eta 1980-90 hamarkadetako pop-rock latinoak ekarriko dau Lowe banda bilbotarrak, zehazkiaren

15ean, 20:30ean Batzokira.

Kontzertu honez gainera, baleiteke kontzertu gehiago egoitea, urri bigarrenaren amaieran kartela guztiz zarratu barik egoan eta.

Jaialdiak

Zezilia Deunaren eguna ospatuteko jaialdiak egingo ditue Arratiako Musika Eskolako ikasleak eta eskola-umeak. Zemendia- ren 21ean egingo dabe jaialdia Arratiako Musika Eskolakoak, 18:00etan eta hurrengo egunean, 15:15ean, Arteko eskola umeak izango dabe jaialdia eskolan. Jubiladu eta pensionistak bazkaria egingo dabe hilaren 9an Ustrukue tabernan 14:30ean eta hilaren 17an San Martin ospatuko da ermita inguruan.

DUNBA

Zeanuriko ortuko elikagaiak salgai

Zeanuriko eskolako 5. mailako ikasleak

1. eta 2. mailako ikasleak azokea antolatu eban Zeanuriko eskolan. Azokea, 2019ko urri bigarrenaren 1ean, martitzena, egin eban. Eskolako sarreran mahaiak ipini ebezan eta bertan elikagaiak zabaldu salmenta egiteko.

Ikasleak eskolako ortutik hartu ebezan barazkiak eta frutak. Salmenta egiteko elikagai nahioa ez egoanez etxeko ortuetatik ekarri zituen elikagaiak. Azokan barazkiak (letxugea, piperrak, kipulea, kalabazea, kalabazina, piparrak...)

frutak (sagarra, laranja, limoiak, limak, tomateak, madariak, mahatsak...) irasagarra eta frutu lehorrak (gaztainak eta intxaurrak) saldu zituen.

Azokea dirua erabilten ikasteko eta pisuak ikasteko egin eban, gero lortutako dirua eskolako irakasle bateri emon eutsien orturako haziak erosteko.

Proposamena 1. zikloko irakasleak egin eban, eskolako ortuko barazkiak aprobetxetako.

Salmentea txandaka egin eban, 1. eta 2. mailako ikasle guztiak nahastuta.

Elikagaien prezioa 3 eurotik



behera izan zan. Elikagaiak hiru taldetan banandu ebezan prezioak ipinteko, dozenaka, pisuka eta banaka.

Jatekoak, gurasoak eta irakasle batzuk erosi zituen.

Salmenta egiten 38 euro lortu eban.

Lehen hezkuntzako gazteenak hasieran urduri egozan baina gero gustura ibili ziran azokako salmentea egiten.

AGENDEA

ZEMENDIAK 1 ARANTZAZU

Hilaren 6ra arte, sanmartinetako bertso afarirako txartelak erosi daitezke Arantzazuko Herriko Tabernan, Montero tabernan eta Igorreko Herriko Tabernan.

ARTEA

20:30ean, Carlos Velasco Organ Trio Herriko Bentan. Azaro Musikala.

ARRATIA

Igitie alkartearen Gabonetako loteak eskatzeko epea zabalik hilaren 30era arte. Otzara bi salgai: Leungane 30 euro eta Itxina 50 euro. Eskariak 605 728 358 edo 667 395 099 telefonoetan egin behar dira.

DIMA

Gorbeia Euskadik antolatuta, Antzasti museora bisitea.

Hilaren 29ra arte sinadura bilketea Kutxabank-ekoai astean bitan bulegoa zabalduko eskatzeko. Udaletxean.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, hilaren 3ra arte, mendi urtekera. Santo Domingo (1.524 m.)-Pusillibro (1.597m.)-Caballera (1.565 m.).



IGORRE

Prozesu sortzaile genuinoaren garapena arte plastikoen bidez erakusketara. Kultur Etxean. Erakusketara hilaren 29ra arte egongo da.



ZEANURI

Hilaren 24ra arte, Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten Alkarteak antolatutako zemendiaren 27ko bazkarian izen emotea.

ZEMENDIAK 2

IGORRE

22:00etan, zinea *It2* Lasarte Aretoan.



ZEMENDIAK 3

IGORRE

17:00etan, zinea *Manou* (euskeraz); 19:30ean, *It2* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

Gure Indarra Jubilatuta eta Pentsionisten alkarteko bazkideen bazkaria. 13:00etan, hildakoen omenezko mezea; 14:30ean, bazkaria Zubialden.

ZEMENDIAK 4

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 8ra arte, zemendiaren 15etik 17ra izango dan Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Chispas en casa* elektrizidade tailerrako izen emotea. Liburutegian.

LEMOA

19:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan, *Kartel feministak diseinatzen* ikastaroa Torontileren eskutik Kulturgunean.



ZEMENDIAK 5

BEDIA

Hilaren 15era arte, Gabonetako Postalen Lehiaketea. Parte hartzaileak lau taldetan bananduko dira. A taldea: 3 urtetik 6 urtera; B taldea: 7 urtetik 12 urtera; D taldea: 13 urtetik 17 urtera eta E taldea: 18 urtetik aurrera.

16:30etik 19:30era, hilaren 15era arte, Udalak eraritutako hurrengo ikastaroetan izen emotea. *Mugiment Programa-Taldean oinez ibili; Mugiment Programa-Korrika eta luzaketak; Mantenu-Soinketa eta Eskulanak. Zumba, Yoga, Gimnasia erritmikoa, Egurra*

lantzen, Mintza Praktika ingelesez eta Umeentzako euskal jantzak ikastaroetan plaza libre beteteko aukerea. Liburutegian.

18:00etan, Umeen Irakurle Kluba. *Coraline* Julen Gabiriak euskeratuta. Liburutegian.



ZEMENDIAK 7

ARTEA

19:30ean, aurrekontuetako batzarra. Herriko Plaza, Kalleja eta Astuibekoa. Kultur Etxean.

IGORRE

20:00etan, zinekluba *The Rider* (Chloe Zhao) Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolaren barruan, *Kartel feministak diseinatzen* ikastaroa Torontileren eskutik Kulturgunean.

ZEMENDIAK 8

ARANTZAZU

21:00etan, sanmartinetako IX. Bertso Afaria. Nerea Ibarzabal eta Etahun Lekue Herriko Tabernan. Bildu Kultur Batzordeak antolatuta.

ARTEA

20:30ean, In Bigu Gypsy Jazz taldearen

kontzertua Kultur Etxean. Azaro Musikala.

DIMA

19:00etan, Arnasa Gara kanpainearen aurkezpena Abaroa Aretoan. Osteen mokadua.

ZEANURI

18:00etan, Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten Alkarteak antolatutako berbaldia osteoporosi, artrosi eta artritisaren jatorria, sintomak, prebentzioa eta nutrizio jarraibideen inguruko.

ZEMENDIAK 9

ARTEA

14:30ean, jubilatu eta pentsionisten bazkaria Ustrukue tabernan.

BEDIA

San Martin jaiak. 09:00etan, ibilaldia Martin Atuxaren oroimenez, plazatik urtenda; 10:30etik 12:00etara, txixi-burruntzia, herriko gazte trikitilariak girotuta; 12:00etan, mezea San Martin ermitan; 12:45ean, bola jokoa eta zozketea; 14:30ean, baba-jana eta erromeria frontoian.

IGORRE

21:30etik aurrera, kontzertuak. Escuela de odio, The Guilty Brigade, Klown eta Carne Cruda taldeak Kiñu Gaztetxean.



Hezurbeltzak ikuskizuna Igorreko Kultur Etxean

Jon Maia, bertsolari eta abeslariak, Gorka Hermosa akordeoijoleak eta Pitti gitarrajoleak *Hezurbeltzak* izeneko lana eskainiko dabe zemendiaren 8an, 21:00etan, Lasarte Aretoan.

Proiektuak, zuzeneko emonaldietan musikea gainditzen dauan hiru artisten uniberso propioa sortzean dau. Kantu eta testuetan, besteak beste, emigrazioa, gizarteko personaje baztertuak eta horreen inguruko istorioak plazaratzen dira, poetikea, kritikea, umorea eta edertasuna buztartuz eta *atrezzo* eta giro bakan baten barruan aurkeztuta. Jon Maiaren berbetan, "*Hezurbeltzak* proiektu musikal huts bat baino gehiago bezala ulertzen dogu guretik eta hau Euskal Herriko txoko guztietara heldu arazotea da gure grina".

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekera Arratiatik perretxikotan.

ZEANURI

18:00etan, Arnasa Gara aurkezpen ekitaldia Kultur Etxean. Osteen bertso afaria Sustrai Colina eta Aitor Mendiluzegaz Jubilatuen tabernan.

ZEMENDIAK 10

ARTEA

12:00etan, *Gorputza, lurra eta feminismoa* munduko herrialdeetako andra defendatzaileen mahai-ingurua. Zuleima Arauz (El Salvador), Michaele Carbajal (Honduras), Stacy Velasquez (Guatemala), Irma Vazquez (Chiapas) eta Maricela Ramos (El Salvador). Kultur Etxean.

LEMOA

10:00etatik 15:00etara, XX. Nekazaritzako Elikagaien Azoka, Elizondon futbol zelaiaren ondoan, eta erakusketa mikologikoa Atxeta plazan.

ZEMENDIAK 11

LEMOA

19:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan, *Kartel feministak diseinatzen* ikastaroa Torontileren eskutik Kulturgunean.

ZEMENDIAK 13

BEDIA

17:00etan, 60 urtetik gorakoentzako batzar informatiboa. Gurutze Gorriak eta Udalak eskaintzen dabezan zerbitzuen barri emoteko. Liburutegian.

LEMOA

19:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan, *Kartel feministak diseinatzen* ikastaroa Torontileren eskutik Kulturgunean.

20:00etan, Ganzabal Mendi Taldeko bazkideen proiektzioak. Patxi Lopezen *Uganda, laku handien herrialdea*, bizikletaz Jubilatuen lokalaren gaineko aretoan.

ZEMENDIAK 14

ARTEA

19:30ean, aurrekontuetako herri batzarra. Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 15

ARRATIA

Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketa parte hartzeako atzen eguna.

ARTEA

20:30ean, Lowe taldearen kontzertua Batzokian. Azaro Musikala.

BEDIA

18:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolaren programazioaren barruan, *Chispas en casa* elektrizidade tailerra eskolan.

IGORRE

19:00etan, *Kanta pobreziaaren aurka* jai solidarioa Caritasek antolatuta. Kultur Etxean. Jon Enbeitak, Rafa Rueda eta Txus Aranburu izango ditu lagun kantuan. *Iraungo dut* bere azken diskoaren kantak kantauko ditue. EALE jantza taldeak, Igorreko Andra Mari abesbatzak eta Arratiako KTKo abeslariak be hartuko dabe parte. Genma Orbe igorretarrak eta Caritaseko langileak, jantoki sozialetan egindako lanaren testigantza personala emongo dau.

AKI MI KO

K a i l o R e n



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

TEILAK SALGAI

Baserri konponketa baten osteko kurbadun teila erdibarriak saltzean dira. Prezioa 0,70 euro negoziagarriak. Telefonoa: 630 363 971.

DANERIK

IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, 4. DBHko Fisika eta Matematikako klase partikularrik emateko persona bat behar da. Telefonoa: 658 726 587.

LANGILE BILA

Axular Kultur Elkartearen astegoienerako behargin euskaldun bila gabiz. Interesdunak 94 673 70 92 telefonora deitu.

ETXEEN GARBIKUZIA

Etxeak garbitzeko nonor behar badozu, ez eizu dudarik egin. Deitu 632 426 687 telefonora.

PISUA ALOKATZEN DA

Zeanurin pisua alokagai. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta balkoia.

Interesdunak deitu zenbaki honetara:

628 041 526.

LONJEA ALOKAIKURUAN HARTZEAN DOT

Lemoan 80 eta 150 metro bitarteko lonjea behar da alokairuan hartzeako. Deitu 617 046 429 telefonora.

KOMERTZIALA BEHAR DA

Komertzial lanetarako persona bat behar da. Ez da esperientziarik behar. Interesdunak bialdu curriculum info@behingoz.es helbidera.

BASERRI BILA

Lagun bi, alokairuan hartzeako baserri bila gabiz. Deitu 690 984 588 edo 678 902 509 telefonora.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *It 2* filma ikusteko.

Maidar Agesta (Artea)
Aimar Gorospe (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Hezurbeltzak* ikuskizunerako.

Mikel Altuna (Zeanuri)
Lorea Arribas (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
e-ig
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semmedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

begitu
anaitza utzita ezkerre

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 • 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-49-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejateetxea@hotmail.com
Tel: 94 631 52 83

Pinturas Anaitia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkaia egin eta buzkunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



Errukiñe menua

*Ezkur urdaiazpiko eta solomo iberikoak
Oilasko, espinaka, udare eta parmesano ensaladea
Etxeko foie-micuit terrina jengibre pureagaz*

Otarraixkakaz betetako lebatza saltsa amerikarrean

*Etxeko arroz-esnea
32€*

Iturrimaur menua

*Ezkur urdaiazpiko eta solomo iberikoak
Eskabetxautako galeper ensaladea ospinkiakaz
Foiea plantxan, Martini erredukzino eta frutu gorriakaz*

*Txipiroi freskoak plantxan kipula eta piper berdeakaz
Entrekot laminak piper morroi erreakaz*

*Limoi-krema etxeko mazedoniagaz
44€*

10. urteurren menua

*Idar eta mendafin txupitua
Onddo konfitauak arrautza gorringo eta patata pureagaz
Eskabetxautako muskuiluen fideua*

*Lupia plantxan alga pistoagaz
Arkume terrina cous-cousagaz*

*Intxaur-saltsea Idiazabal bitsagaz
38€*

San Bartolome menua

*Leongo zezina, errukula eta parmesanoagaz
Itsaski-salpikoa
Onddo konfitauak arrautza gorringo eta patata pureagaz
Etxeko foie-micuit terrina jengibre pureagaz*

*Zapo-xerra plantxan
Txahal azpizuna goarnizinoagaz*

*Brioche ogi-torrada izozkiagaz
49€*

BEZa barne - Erreserba, gitxienez 48 orduko aurrerapenagaz egin behar da
Informazioa eta erreserbak 94 657 27 05 eta info@hotelbalnearioareatza.com helbidean
Gitxienez 4 lagun - Lehenengo platerak mahai erdira zerbitzatuko dira - 4 laguneko botila bat ur eta ardao botila bat barne
Kristalagaz inguratutako terraza estalia, erabilgarri badago - Gertakari berezietarako tartak, konsultau gehigarria - Merkaduaren arabera
www.hotelbalnearioareatza.com

